



**JASANGARRITASUN, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA ZUZENDARIORETZAKO PROIEKTUAK
ETA OBRA ZUZENDARITZAK IDAZTEKO LAGUNTZA TEKNIKOAREN ZERBITZUA (2027-2031)
KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA,
ESPEDIENTE-ZK.: 3274**

Kontratua erregulazio harmonizatuari loturik dago:	☒ BAI ☐ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☐ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☒ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidente ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Unai García
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak egiteko telefono-zk.: 94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: BBUPko Jasangarritasun, Teknologia eta Berrikuntza Zuzendariordetzaren Proiektu eta Obren Zuzendaritzak idatzi behar dituen giza baliabideen eta baliabide materialen lantaldea osatzen duen laguntza teknikoko talde bat izatea. 2.- Bete beharreko premiak: Honako laguntza tekniko hau kontratatzekeo premia gaur egun indarrean dagoen Inbertsio Planaren garapenari lotutako lanak gauzatzean oinarritzen da, BBUPko Iraunkortasun, Teknologia eta Berrikuntza Zuzendariordetzari agindutako zereginetan, obraren zuzendaritza eta azterlan teknikoen eta proiektuen idazketa aintzat hartuta. 3.- Lotetan banatzea: ☒ Bai ☐ Ez Lotearen deskribapena eta zenbatekoa: 1. lotea ----- Mendebaldea ----- 1.505.068 € 2. lotea ----- Ekialdea ----- 1.565.818 € Parte hartzeko/adjudikatzeko muga: Lote bietan aurkeztu ahalko dira eskaintzak. 1. lotearen adjudikazioduna 2. lotearen esleipenetik kanpo geratuko da. Muga hori ez da aplikatuko 2. lotean eskaintzaile bakarra aurkeztu bada; kasu horretan, bi loteen adjudikazioduna bat etorri ahal izango da. 4.- CPV: 71000000-8 Arkitektura-, eraikuntza-, ingeniari- eta ikuskaritza-zerbitzuak



B.- KONTRATUAREN XEDEA

- 71242000-6 Proiektuak eta diseinuak egitea, aurrekontuak
- 71300000-1 Ingeniaritza-zerbitzuak

5.- Aldagaiak edo alternatibak onartzea:

- ☐ BAI
☒ EZ

Onartzeko baldintzak eta aldatu edo aukeratu daitezkeen elementuak:

6.- Izaera juridikoa

- ☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)

**HIRU MILIOI, HIRUROGEITA HAMAR MILA
ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA SEI EURO
(3.070.886 €)**

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: HIRU MILIOI, HIRUROGEITA HAMAR MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA SEI EURO (3.070.886 €)

Loteak:

- ☒ BAI
☐ EZ

Loteen balio zenbatetsia:

1. lotea ----- Mendebaldea ----- 1.505.068 €
2. lotea ----- Ekialdea ----- 1.565.818 €

3.- Prezioa zehazteko sistema:

- ☐ Oroharreko prezioa
☒ Aleko prezioak

4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena:

Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa ondokoak dira:

1. lotea ----- Mendebaldea ----- 459.66-601.32 kontu-saila ----- 1.505.068 €
2. lotea ----- Ekialdea ----- 459.66-601.32 kontu-saila ----- 1.565.818 €

	2027	2028	2029	2030	2031	TOTAL
LOTE 1. ZONA OESTE	300.000 €	375.000 €	375.000 €	375.000 €	80.068 €	1.505.068 €
LOTE 2. ZONA ESTE	310.000 €	385.000 €	385.000 €	385.000 €	100.818 €	1.565.818 €
TOTAL	610.000 €	760.000 €	760.000 €	760.000 €	180.886 €	3.070.886 €

5.-Prezioak berrikustea:

- ☐ BAI
☒ EZ

6.- Kanpoko funtsak erabiliz finantzatzea:

- ☐ BAI ☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: Benetan gauzatutako lanaren hileko ziurtagiriak, kontratu honetarako indarrean dauden prezioen taulan definitutako unitateen neurketen bidez justifikatuak eta Ur



C.- KONTRATUAREN PREZIOA

Partzuergoaren kontratazio-organoak onartuak.

8.-Konturako ordainketak: Ez da aplikatu behar

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupena guztira: LAU (4) URTE

2.-Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena

☐ BAI ☒ EZ

4.- Berme-epea: Ez da behar.

5.- Kontratua gauzatzeko tokia: BBUPren hainbat instalazio.

6.- Lanak partzialki jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena, amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, kontratuaren batez besteko urterokoa halako bat izan beharko da, gutxienez (1. lotea: 376.267 € / 2. lotea: 391.454,5 €).



G.- KAUDIMEN TEKNIKO ETA PROFESIONALA

Kaudimen teknika egiaztatzeko, lizitatzailleek azken hiru (3) urteetan enpresa gisa egin dituen lanen erreferentzien zerrenda aurkeztuko dute, agiri honetan lehiatzen direnekin zerikusia dutenak (**edateko uren eta hondakin-uren tratamendua eta arazketa**), zenbatekoak, datak, erakunde kontratatzailea eta lanaren deskribapena zehaztuta. Zerrenda hori 2023tik 2025era bitartean luzatuko da, biak barne, eta aurreko urteei dagokien informazioa baztertuko da.

Aipatutako aldian egindako zerbitzu nagusien erreferentzietatik, egikaritze handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa dagokion lotearen batez besteko urtekoaren % 50 edo handiagoa izan dadin eskatuko da. Alderdi hori egiaztatzeko, urte anitzeko kontratuak modu uniformean gauzatu direla ulertuko da kontratuak iraun duen bitartean, kontrakoa berariaz egiaztatu ezean. Erreferentzia zehatz horiei gagozkiela, lanak ondo egikaritu izanaren ziurtagiriak aurkeztu behar dira. Ziurtagiri horiek enpresa kontratatzaileak, dela pertsona publikoa, dela pertsona pribatua, egindako lanak zehatz-mehatz deskribatu behar dituzte.

Bost urte baino gutxiagoko antzinatasuna duten enpresen kaudimena egiaztatzeko, lan horiek egiteko esleitzen dituzten teknikariek horrelako proiektuetan egiaztatzen duten esperientzia hartuko da kontuan.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknika:

Kaudimen tekniko eta profesionalean eskatzen den esperientzia ez da kontuan hartuko kasu horietan. Bai, ordea, gainerako eskakizunak.

BALIABIDEEN ATXIKIPENA



Adjudikaziodunak langile tituludunen eta egin beharreko lanen alderdi teknikoetan espezialistak diren profesionalen plantilla izan beharko du, agiri honetan xedatutakoaren arabera. Gutxienez honako profil hauek dituen lantalde teknikoa aurkeztu beharko du.

OHARRA: “goi-mailako titulazioa” delakoaren ordeztu, Ingeniaritzako gradua gehi MECES 3 mailako masterra duen teknikaria ere izan daiteke. Era berean, “erdi-mailako titulazioa” delakoaren ordeztu, MECES 2 mailako Ingeniaritzako gradua duen teknikaria ere izan daiteke.

- Enpresaren ordezkaria: erakunde osoaren arduraduna, Ur Partzuergoaren aurrean enpresaren ordezkari gisa jardungo duena.
- Laguntza teknikoaren koordinatzailea: goi-mailako titulazioa duen teknikari espezialista, garapen eta koordinazio lanetan edo kontratuaren xede diren proiektuen antzekoetan esperientzia egiaztatua duena.
- Goi-mailako titulazioa duen ingeniari espezialista bat, kontratuaren xede diren proiektu hidraulikoen antzekoak idazten esperientzia duena, proiektuaren egile gisa.
- Goi-mailako titulazioa duen ingeniari espezialista bat, egiturak eta obra zibilak kalkulatzeko esperientzia duena.
- Goi-mailako titulazioa du(t)en ingeniari espezialista bat edo batzuk, ekipamendu mekanikoan, elektrizitatean, aireztapenean eta desodorizazioan, automatismoetan eta instrumentazioan esperientzia du(t)ena(k).
- Goi-mailako titulazioa du(t)en espezialista bat edo batzuk, ingurumen-inpaktuaren azterketak eta aukeren azterlanak egiten esperientzia du(t)ena(k).
- Segurtasun- eta osasun-koordinatzaile bat, proiektu-fasean.
- Geologian eta geoteknikan esperientzia duen teknikari espezialista bat.
- Goi-mailako titulazioa duen arkitekto bat, arkitektura-diseinuan esperientzia duena.
- Topografia-taldea: topografo batek eta laguntzaile batek osatuko dute. Topografoak Topografiako Ingeniaritza Teknikoko titulua izango du, edo, bestela, titulurik gabeko bat ere izan daiteke, lanbide horretan jardun dezakeena, 58/2/3ko Aginduen arabera. Nolanahi ere, bi kasuetan, obra zibilar lotutako topografia-lanetan esperientzia izan beharko du, eta puntu-hodeiak (laser eskannerra, lidarra, dronea, infragorriak, fotogrametria eta abar lortzeko topografia-ezagutza espezifikoak izan beharko du.

Gainera, II. taldeko lanak egiteko:

- Obrako goi-mailako ingeniaria: goi-mailako ingeniari bat (bide-, industria- edo meatze-ingeniaria), edateko ura eta hondakin-ura tratatzeko estazioetako obrak zuzentzen, ikuskatzen, zerbitzuan jartzen eta kontrolatzen esperientzia duena, eta diseinua eta kalkulua estrukturalak eta hidraulikoak egiteko gaitasuna duena, bai eta lantaldeak antolatze eta koordinatzeko trebetasunak ere.
- Erdi mailako teknikaria: erdi-mailako teknikaria (herri-lan, meatze, industria eta abarretako ingeniari tekniko titulua duena), edateko ura eta hondakin-ura tratatzeko estazioetako obrak egiten esperientzia duena.
- Obrako teknikari eta laguntzaile teknikoak: delineazioaren baliokidea den titulazioa izan beharko dute edo enpresan kategoria horrekin parekatuta egon beharko dute, eta obran bertan esperientzia izan behar dute.

LANBIDE GAIKUNTZA

ENPRESA SAILKAPENA

ENPRESA SAILKAPENA ☐ Bai, fakultatiboa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- 1.- 1. gutun-azala: erantzukizunpeko adierazpena.
- 2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioei loturiko irizpideen dokumentazioa.
- 3.- 3. gutun-azala: automatikoki kuantifikatzekoak diren irizpideen dokumentazioa.

BALIO JUDIZIOEI LOTURIKO IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintzak aztertzeko, lizitatzailleek aurkeztu behar duten dokumentazio teknikoaren edukia eta irismena honako hau izango da:

Lizitatzailleek argi eta garbi bereizi beharko dute kontratu honen bi lan-arlo nagusiei buruzko dokumentazio teknikoa:

- I. taldea: Azterlanak eta proiektuak idaztea
- II. taldea: Obren zuzendaritzari laguntza teknikoa ematea

Kontratu hau garatzeko behar diren bitarteko guztiak (giza baliabideak, ekipo eta programa informatikoak, ibilgailuak, dokumentuen edizioa...) adjudikaziodunaren kontura izango dira, eta dimentsio egokia izan dute lote bakoitzean bi proiektu aldi berean idatzi ahal izateko.

Bi lan-arloetako bakoitzean (I. taldea eta II. taldea), aurkeztu beharreko proposamen teknikoak ahalik eta laburrena eta zehatzena izan beharko du. Atalez atal, eduki eta egitura honetara mugatu beharko da:

- a) Egin beharreko lanak deskribatzen dituen memoria teknikoa, lanak behar bezala gauzatzeko jarraitu beharreko metodologia eta antolamendua azpimarratuta. Eskatutako prestazio osoa optimizatzeko edo hobetzeko egokitzat jotzen diren eta dagokion kontratuari aplikatu behar zaizkion alderdi osagarri guztiak adieraziko dira. Enpresa lizitatzailleek PRE-BEP bat aurkeztu beharko dute Partzuergoaren BIM eskakizunei erantzuteko. Dokumentuak proposatutako ikuspegia egiaztatu du, baita BIM helburuei eta erabilerei ekiteko gaitasunak ere.
- b) Esleitutako talde teknikoaren osaera, taldekideen kualifikazioa, dedikazioa eta antolaketa, lantalde hori kontratuaren helburura egokitzeak. Lantalde teknikoko kide bakoitzaren curriculum vitae erantsiko da, laburtuta eta egin beharreko lanei lotuta. Gainera, dokumentu horretan deskribatutako eginkizunak behar bezala betetzeko esperientzia justifikatu beharko da, bai enpresarena, bai adierazitako langileena, bai BIM metodologiaren ezagutza-maila, bai prozeduraren eta estandarren ikuspegitik, bai softwarearen eta hardwarearen ikuspegitik. Hala berean, baloratu egingo da garaierako eta espazio konfinatuetako lanetan prebentzio-prestakuntza espezifikoak dutela egiaztatzen duen dokumentazioa ematea. Atxikitako lantalde teknikoak prestakuntza hori ez badu, nahitaezkoa izango da konpromiso-gutun bat aurkeztea, lanak hasi baino lehen kontratistak prestakuntza hori eman diezaion.

Langile guztien laborpen-taula bat aurkeztu beharko da Excel formatuan, eta bertan datu garrantzitsuenak adieraziko dira: kargua, titulazioa, esperientzia-urteak, dedikazioa, plantillakoa den edo kanpoko laguntzailea den eta abar jasota.

- c) Hirugarrenei azpikontratutako lanak. Ildo horretan, lizitatzailleak laguntza teknikoko lanen zati bat hirugarrenekin ituntzeko beharra aurreikusten badu, berariaz adierazi beharko du lankidetzaren norainokoa, eta, era berean, dagokion konpromiso-agiria erakutsiz, frogatu beharko du kontratua gauzatzeko beste erakunde baten bidez emandako baliabideak izango dituela, eta adierazi beharko du kontratuaren adjudikaziodun izanez gero, lizitatzailleak konpromisoa hartzen duela kontratua bere kaudimena egiaztatzeke aurkeztu dituen bitarteko berberak erabiliz gauzatuko duela.

Horrez gain, adjudikaziodunak egin beharreko lan guztietarako erkideak diren alderdi hauek adieraziko dira:

BALIO JUDIZIOEI LOTURIKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

d) Lizitatzailleak kontratuaren eskura jarritako bitartekoak eta azpiegitura teknikoa, eta, ondoren, kudeatzeko eta erantzuteko gaitasuna. Besteak beste, honako hauek deskribatu beharko ditu:

- I. Ingeniaritza-lan gehienak egingo diren bulegoa, eta proposatutako lantaldea osatuko duten langileak non atxikiko diren.
- II. Prozesu hidraulikoak kalkulatzeko tresnen jabetza eta horiek erabiltzeko gaitasuna: Biowin edo antzekoa prozesu biologikoetan, lerro piezometrikoen kalkulua, erreaktiboen dosifikazioaren kalkulua, kalkulu elektrikoak, mekanikoak, egiturak, obra zibila eta beste.
- III. Laser-ekipoen eta programa espezifikoaren jabetza eta erabilera-gaitasuna, puntuak hartu eta puntu-hodeiekin lan egiteko.
- IV. BIM metodologia aplikatzeko berariazko programen jabetza eta erabilera-gaitasuna, batez ere, openBIM delakoari dagokionez.
- V. Baliabide teknikoak instalazioetan datuak hartzeko, saiakuntzak eta landa-neurketak egiteko, espazio konfinatueterako sarbidea izateko (tripodea, arnesa, eskailerak...), Laneko Arriskuen Prebentzioaren helburuak lor daitezen.
- VI. Lanak egiteko lantaldearen esku jartzeko konpromisoa hartzen duen baliabide teknikoak, hala nola testuak editatzeko eta planoak eta aurrekontuak egiteko ekipo informatikoak.

e) Ingurumen- eta gizarte-irizpideak:

Diseinu-fasean, ingurumena babesteko neurriak deskribatuko dira. Era berean, enpresaren gizarte-erantzukizunarekiko konpromisoa, enpleguaren sustapena eta egonkortasuna, bidezko soldata ordaintzea, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ezabatzea eta desgaitasuna duten langileak laneratzea.

Kontratuaren xedeari dagokionez, lehen aipatutako dokumentazio teknikoaren edukiak zehatza izan beharko du, formatu digitalean aurkeztu beharko da, eta gehienez ere 30 orri izango ditu 1. LOTEAN, eta 30 orri 2. LOTEAN, ezaugarri hauei erreparaturik:

- Tamaina: DIN-A4.
- Letra-mota eta gutxieneko tamaina: ARIAL, 10 puntu.
- Gutxieneko lerroarte: 1,5 puntu.
- Gutxieneko goiko eta beheko marjinak: 2,5 cm.
- Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjinak: 2 cm.

Gehieneko orrialde kopurua zenbatzeko, aipatutako mugaren barruan zenbatuko da aurkibidea, eta ez dira kontuan hartuko azala eta kontrazala.

Eskaintzaren azterketan, ez da kontuan hartuko adierazitako gehieneko kopurua gainditzen duten orrien edukia, ezta aurreko formatuaren ezaugarriak betetzen ez dituzten orrialdeak ere.

Salbuespen gisa, DIN A-3/A-2/A-1 formatuko orrialdeak txertatu ahalko dira beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko (planoak edo diagramak), eta orrialde bakar gisa kontabilizatuko dira.

Aurreko zenbaketan, ez da kontuan hartuko antzeko lanei buruzko erreferentziak, esleitutako lantaldearen esperientzia (egikaritze-ziurtagiriak eta CV) eta azpikontratutako lanen konpromiso-dokumentuak egiaztatzen dituen agiririk. Informazio hori eranskin independente batean erantsi beharko da.

Aurreko zenbaketari dagokionez, eskatutako PRE-BEP agirian 10 orrialde gehiago onartuko dira.



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKOAK DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da **I. eranskin**eko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

- a) Baldintza tekniko partikularren agirian zehaztutako unitateen **prezioen zerrenda**, dokumentu honi erantsitako taulen arabera.
- b) Eskaintako unitateko prezioekin egindako **kontratuaren aurrekontua**, neurketak dokumentu honi erantsitako tauletan adierazitakoekin bat etorritik. Neurketa horiek aldatu egin daitezke kontratua gauzatzen den bitartean, benetako beharren arabera. Aurrekoa gorabehera, lizitatzailleek neurketa horiek erabiliko dituzte eskaintza ekonomikoa egiteko, unitateko prezioak aplikatuz.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (Administrazio-baldintza berezien pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

☒ Adituen batzordea

Batzordekideak:

Ekaitz Mentxaka Corral jauna.
Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.
Xabier Orue Moro jauna.
Itziar Zarate Urrutia andrea.
Gerardo Latorre Pedret jauna.
Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKOAK DIREN IRIZPIDEAK: 30 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez ere 30 puntu lor daitezke.

Horretarako, ondoko formula matematikoak erabiliko dira. Eraitza K1 koefizientearekin biderkatuko da eta honen berdina izango da:

K.- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

K1 = 30/50

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekorekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BM) / 2	48 puntu
BM	47 puntu
0,8 x BM	46 puntu
0,6 x BM	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batez besteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.

Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BM < Bi \leq 0,8 \times BM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BM < Bi \leq BM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < Bi \leq (BM + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BM)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

Baldin eta $(BM + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BM - Bmax)}{2} \times 2$$



K.- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

(Bmax - BM)

BALIO JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEAK: 70 PUNTU

A.1 Memoria teknikoa eta Metodologia: 27 puntu.

- Lan-metodologia. Proposamen teknikoa kontratuaren helburura egokitzea, arreta berezia jarrita proiektuaren fase eta zeregin bakoitzeko dedikazio-azterketari eta autokontrol-programari, azken lanaren kalitatea bermatzeko prozedura gisa; entrega bakoitza gainbegiratzeko metodoa, garaiz eta behar den moduan; eta, hala badagokio, Ur Partzuergoak eskatzen dituen zuzenketak egitea eta egiaztatzea **20 puntu.**
- Proposatutako zerbitzuaren egokitasuna. Lizitatzailleak kontratuari atxikitako baliabide eta azpiegitura teknikoak eta kudeatzeko eta erantzuteko gaitasuna **5 puntu.**
- PRE-BEP agiria: Partzuergoaren BIM eskakizunei erantzun beharko die. Dokumentuak proposatutako ikuspegia erakutsiko du, bai eta BIM helburuei eta erabilerei ekiteko gaitasunak ere; BIM metodologiaren inplementazioari buruzko xehetasunak oro har definituko ditu proiektu osoaren bitartez, eta inplementazioaren irismena, BIM prozesuak eta zereginak, informazio-trukeak, mugarriak eta entregagarriak, beharrezko azpiegitura, rolak eta erantzukizunak eta abar definituko ditu, oinarrien pleguaren eta eranskinen arabera. Lizitatzailleak beste aukera batzuk proposatu ahal izango ditu baldintza-agirian ezarritakoez gain, argi eta garbi balioesteko moduan, hautapena homogeneotasun-irizpideen arabera egin ahal izateko **2 puntu.**

A.2 Baliabide teknikoak.....41 puntu.

- Azterlanak eta proiektuak idazteko eta obrak zuzentzeko lanetan: proposatutako lantaldeko kide bakoitzaren titulazio, esperientzia, prestakuntza, kualifikazio eta dedikazioaren egokitasuna memoria teknikoan adierazitako helburuak lortzeko **30 puntu.**
- BIM metodologia garatzeko: proposatutako taldeko kide bakoitzaren titulazio, esperientzia, prestakuntza, kualifikazio eta dedikazioaren egokitasuna, eta kontratuari atxikitako ekipo informatikoen eta software-lizentzien zehaztapenak **5 puntu.**
- Laneko Arriskuen Prebentzioko helburuak lortzeko helburuz: instalazioetan, saiakuntzetan eta landa-neurketetan, garaierako lanetan, espazio konfinatuetarako sarbideetan eta abarretan (1215 ED, 1644 ED...) datuak hartzeko proposatzen den lantaldeko kide bakoitzaren titulazio, esperientzia, prestakuntza, kualifikazio eta dedikazioaren egokitasuna preskripzio tekniko partikularren agiriaren 6. atalean adierazitakoaren arabera **3 puntu.**
- Instalazioetan, saiakuntzetan eta landa-neurketetan, garaierako lanetan, espazio konfinatuetarako sarbideetan eta abarretan datuak hartzeko beharrezkoak diren baliabide teknikoen eskuragarritasuna, preskripzio tekniko partikularren agiriaren 6. atalean adierazitakoaren arabera, Laneko Arriskuen Prebentzioko helburuak lortze aldera. Proposamena aurkezteko unean, beharrezko baliabide teknikoren bat jabetzan ez badago, horiek edukitzeko konpromiso-gutuna erantsi ahal izango da **3 puntu.**

K.- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

A.3 Ingurumen- eta gizarte-irizpideak..... 2 puntu.

- Proiektatu beharreko obren bizi-zikloaren ingurumen-inpaktua murrizteko estandarrak eta arrazoizko beste neurri batzuk aplikatzea proiektuak idazteko lanetan. Diseinuan, materialen hautaketan, eraikuntza-irtenbideen definizioan eta abarretan ingurumen-irizpideak kontuan hartzeko idazketa-taldearen proposamen metodologikoa baloratuko da **1 puntu.**
- Gizarte-irizpideak: Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak desagerraraztea baloratuko da, lantaldean parte hartzen duten emakumeen ehunekoaren arabera, irizpide honi jarraikiz:
 - % 50etik gorako ehunekoa: **1 puntu.**
 - X ehunekoa, % 50etik beherakoa: (X/50)

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko, hurrenkera honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresetako plantilletan desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketan dauden langileen ehuneko handiena. Berdinketa egonez gero, desgaitasuna duten plantillako langile finkoen kopurua edo gizarte-bazterketan daudenena lehenetsiko da.
- b) Enpresa bakoitzaren plantillako aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.
- c) Enpresa bakoitzaren plantillako emakume langileen ehuneko handiena.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Ohi baino merkeagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino merkeagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzailerak bakarrik izanik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino % 25 txikiagoa denean.
- Bi lizitatzailerak izanik, beste eskaintzaren aldean % 20 baino txikiagoa denean.
- Hiru lizitatzailerak izanik, egindako eskaintzen batez besteko aritmetikoaren aldean % 10 baino txikiagoak diren eskaintzak. Hala eta guztiz ere, batez bestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batez bestekoa kontuan hartuta % 10 baino handiagoa bada, soil-soilik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-hurrenkerari. Nolanahi ere, neurritz kanpokatzen joko da % 25 unitatetik gorako beherapena.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago izanik, egindako eskaintzen batez besteko aritmetikoaren aldean % 10 baino txikiagoak diren eskaintzak. Dena den, horien artean batez bestekoa baino % 10 handiagoak diren eskaintzak badaude, batez bestekoa kalkulatu da kasu horretan ez dauden eskaintzak erabiliz. Kalkulu horren xede bakarrik izango da ausarkeria-atalase berria ezartzea, eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-hurrenkerari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batez besteko berria hiru eskaintza merkeenak erabiliz kalkulatu da.

Talde berekoak diren enpresek eskaintzak egin dituztenean, ustezko anormaltasuna dakarten eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, txikiena hartuko da kontuan, kontuan hartu gabe eskaintza bakarka egin duten edo taldearekin zerikusirik ez duen beste enpresa batekin edo batzuekin batera, haiekin aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez egin badute.

4.- Lizitatzailerak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxienezko atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **30 puntu** gutxienez ez lortzea.



L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko partikularren agirian adierazitakoak.

M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko partikularren agirian adierazitako kasuak eta ekintzak.

Ezarritako epeak betetzen ez badira, proiektuaren idazketaren zenbatekoaren % 2 zigortuko da 30 egun naturaleko atzerapen bakoitzeko, gehienez ere, proiektu bakoitzaren onartutako kostuaren zenbatekoaren % 20 eta kontratu osoaren % 10 metatuta.

Lizitatzailerak proposatutako ingurumen- eta gizarte-arloko konpromiso bakoitza ez betetzea zigortuko da, eskaintzaren balorazio teknikoan lortutako balorazio-puntu bakoitzeko esleitutako kontratuaren zenbatekoaren % 2a ezarrita, hain zuzen.

Lizitatzailerak proposatutako lan-arriskuen prebentzioaren arloko baliabide teknikoen konpromiso bakoitza ez betetzea zigortuko da, eskaintzaren balorazio teknikoan lortutako balorazio-puntu bakoitzeko esleitutako kontratuaren zenbatekoaren % 2a ezarrita, hain zuzen.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Lizitatzailerak arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela ziurtatzen duen egiaztagiria.

N.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

- ☒ Hasierako ekarpenaren betebeharra
☐ Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

- ☒ BAI
☐ EZ



KONTRATUAREN ARAUNALDIAN BETETZEKO BALDINTZAK

Lantaldeak beharrezkoak diren ekipamenduko baliabide tekniko guztiak izango ditu eskura, zehazki, kontratuko baldintza tekniko partikularren agiria betetzeko behar diren hardwarea eta softwarea.

Hasieran proposatutako lantaldeko kideren bati baja emanaz gero, kontratistaren ordezkariak beste pertsona bat proposatuko dio BBUPko kontratuaren arduradunari, eta nahitaez bete beharko ditu giza langileei eska dakizkiekeen kontratu-baldintzak, baldin eta ordezkatzeko duenaren kaudimen bera edo handiagoa badute, bajaren unetik 15 eguneko epean gehienez ere.

Nolanahi ere, bai ordezkariak, bai taldeko arduradunak, prest egon beharko dute, kontratuaren arduradunak eskatuta, lanen aldizkako jarraipena egiteko.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Kontratista adjudikaziodunak ordezkari bat atxiki beharko dio obra honi, kontratuaren harremanetan jarduteko edo enpresa ordezkatzeko gaitasun nahikoa duena.

Ordezkarik honek eta esleipendunaren aginduetara dauden langileek ez dute harreman juridikorik izango, ez lan-harremanik, ez bestelakorik, Ur Partzuergoarekin, ez kontratuaren indarraldian, ez kontratua amaitzean.

BESTE GOGOETA BATZUK

Bereziki, materialak edo osagaiak fabrikatzen dituzten sozietateekiko eta enpresa sustatzaile, eraikitzaile edo instalatzaileekiko erabateko independentzia juridiko eta ekonomikoaren ziurtagiria edo berariazko adierazpena eskatuko da. Era berean, adjudikaziodunak izanez gero, hirugarrenentzako eskaintzak egiten ez laguntzeko konpromisoa adierazi beharko dute, BBUPrekin duten kontratu-loturak irauten duen artean.